



**TXOSTENA**

*2017ko azaroaren 23a*

**BILBON  
EUSKARAREN  
ERABILERA  
NORMALIZATZEKO  
ETA SUSTATZEKO  
LAN-ILDOAK:  
egindakoak eta  
2018rako  
aurreikuspenak**

## AURKIBIDEA

<b>Sarrera</b> .....	3
<b>Egindakoak</b> .....	4
<b>1. ESEP</b> .....	4
1. Helburu estrategikoa: Jabekuntza .....	6
1.1. Familia bidezko transmisioa	
1.2. Irakaskuntza	
1.3. Euskalduntze-alfabetatzea	
2. Helburu estrategikoa: Erabilera .....	7
2.1. Udal administrazioa (Erabilera Plana)	
2.2. Arlo sozio-ekonomikoa: Merkataritza	
2.3. Aisia: Haur eta gazteentzako ekimenak	
3. Helburu estrategikoa: Elikadura .....	8
3.1. Liburugintza	
3.2. Kulturgintza	
3.3. Publizitatea	
3.4. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	
3.5. Hedabideak	
3.6. Informazio- eta komunikazio-teknologiak	
3.7. Euskararen aldeko motibazioa	
<b>2. Erabilera Plana</b> .....	11
1. Xede nagusia, helburu orokorrak eta oinarriak	
2. Lanerako esparruak	
3. Lanpostuetako HE eta DD	
4. Langileen prestakuntza	
5. Langileen hizkuntza-ohiturak aldatzeko esperientziak	
6. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak	
<b>3. EABren azpibatzeak</b> .....	19
<b>2018-rako lan-ildoak</b> .....	20
<b>1. ESEP eta Erabilera Plana</b> .....	20
- ESEP: hurrengo planari ekin	
- Erabilera Plana:	
+ Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak	
+ Langileen hizkuntza-ohiturak	

<b>2. Araudia eta hizkuntza-eskubideak .....</b>	<b>20</b>
- Udal-ordenantzak	
<b>3. Motibazioa eta sentsibilizazioa .....</b>	<b>21</b>
- <i>Hirian ere...</i>	
- <i>11 egun euskaraz</i>	
<b>4. EABren azpibatzerdeak .....</b>	<b>21</b>
- Euskaltegiak	
+ Finantzazioa	
+ Sektore jakinentzako eskaintzak	
- Hedabideak	
+ Harremanak bi hizkuntzetan, lehenasuna euskarari	
+ Euskarazko hedabideei garrantzia	
- Euskara-elkarteak	
+ Gazteak: <i>Mintzakuadrillak</i>	
+ Familiak: <i>Familiak olgetan</i>	
+ Merkatariak: <i>Biribilko</i>	
+ Etorrinak: <i>Zergatik ez? / ¿Compartimos?</i>	

## SARRERA

---

Bilboko Udalaren Euskara Zuzendariordetzaren helburu nagusia da **euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea**, bai udal **administrazioaren jardunean**, baita **udalerrian** ere. Horretara bideratzen ditu bere lana eta herritarrei eskaintzen dizkien programa eta zerbitzu guztiak.

Udalerriri begira, garrantzitsua da bilbotarren **hizkuntza-ohituretan eragina** izango duten programak gauzatzea, honako era honetara:

- Euskara **erabiltzeko motibazioa eta sentsibilizazioa** landuz.
- Euskara ikasteko edota **ezagutza sakontzeko baliabideak** eskainiz.
- Euskara **erabiltzeko espazioak sortuz** eta ekimenak antolatuz.

Udalaren barruko jardunari begira, berriz, **lehentasunak** hauek dira:

- Herritarrei **zerbitzua euskaraz** ematea.
- Udalaren **eguneroko lana euskaraz** ere egin ahal izatea.
- Udalaren sailen arteko **harremanak** eta beste erakundeekikoak, apurka-apurka, **euskaraz** izan daitezen bultzatzea.

Helburu nagusi horiek gauzatzeko, **lanabes nagusi hauek** ditu Udalak:

- Bilboko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (**ESEP**).
- Udal administrazioaren Euskararen **Erabilera Normalizatzeko Plana**.

Bi Plan horiez gainera, Bilboko Udalak Euskararen **Aholku Batzordea** (EAB) sortu zuen, hirian euskararen erabilera areagotzen lagunduko duen tresna izan dadin. Horretarako, **hiru azpibatzerde sortu ziren** bere baitan: **euskaltegiak, hedabideak eta euskara-elkarteak**.

Datorren abenduaren 31n amaituko dira ESEP eta Erabilera Planaren indarraldiak, eta haien ebaluazioa egitea egokituko zaio Euskara Zuzendariordetzari. Ebaluazioak emango dituen ondorio zehatzak orain aurreraterik ez dagoen arren, txosten honen bidez datu eta informazio esanguratsu batzuk azalduko ditugu:

- ESEPen jarduera 2014-2017 epealdian.
- Erabilera Planaren jarduera 2013-2017 plangintzaldian.
- EABren 3 azpibatzerdeen jarduera.

Horrekin batera, eta 2018ra begira, aipatutako plan eta azpibatzerde horien lan-ildoak, beste ekimen batzuekin batera, zeintzuk izango diren azalduko dugu.

## EGINDAKOAK

### 1) Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)


ESEP Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak EAerako diseinatutako plan orokorra da, gizartean elebitasun orekatua lortzeko behar diren hizkuntza-politikarako neurriak definitzeko balio duena.

Planak lehenetasunezko helburuak eta eragin eremuak identifikatu ditu, eta baita neurriak ere, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eta bermeak eskaini ahal izateko eta botere publikoek babestu beharreko herritar guztien hizkuntza-eskubideak errespetatuak izan daitezen eguneroko jardunean.

Bilboko Udalak bat egiten du plan estrategiko honen helburuekin eta 2014-2017 epealdirako ESEP onartu zuen, Bilbon euskararen normalizazioa esparru guztietara zabaltzeko programak biltzen dituen tresna nagusi gisa.

#### Bilboren datu soziolinguistikoak<sup>1</sup>:


- Euskaldun-kopurua: 78.727 ( %23)
- Ia-euskaldunen kopurua: 96.774 (%28) Euskaldunak + ia euskaldunak: %51
- Erdaldunak: 166.869 (%49)
- Guztira: 342.370
- Biztanleen bilakaera, hizkuntza-tipologiaren arabera:



<sup>1</sup> EUSTAT Biztanleria eta etxebizitzaren 2011ko datuak

- Euskaldunak, adin-tartearen arabera: hezkuntza-sistemari esker, euskaldunen kopurua izugarri hazi da 25 urtetik beherakoen artean eta hazkundearen garrantzia izan dute 25-40 urte bitarteko taldeek.

## Bilbo



Hau da ESEPen oinarritzko planteamendua: euskararen ezagutza indartu (hizkuntzaren jabeakuntza) familiako transmisio naturalaren bidez nahiz eskolan edota euskaltegian ikasita, eta hortik abiatuta, erabilera sustatzera jo bizitzako eremu guztietan (lana, aisialdia, merkataritza...), baita euskaraz kontsumitzeko kalitatezko produktuak ekoitzi ere (elikadura).

Horrela, plana **3 helburu estrategikoren** inguruan egituratu da, eta helburu bakoitzarekin lotuta zein egitasmo egin den azalduko dugu labur-labur:

## 1. Helburu estrategikoa: Euskararen jabekuntza

Euskararen jabekuntza edo eskuratze-prozesuan hiru esparru bereiz daitezke: familia bidezko transmisioa, euskarazko irakaskuntza eta helduen euskalduntzea edota alfabetatzea.

### 1.1. Familia bidezko transmisioa

*Eman giltza:* Jaio berri guztien etxeetara zoriontzeko gutuna bidaltzen du Udalak, lehen egunetik euskarazko harremanak duen garrantziaz ohartarazteko. Gutunarekin batera, kantuen CD bat, liburuxka bat eta eskuorri bat bidaltzen da.

### 1.2. Irakaskuntza

*Nerabeen interesak eta aisialdia:* Eliteko kirolarien eskutik (Maidier Unda, Igor Anton, Iraia Iturregi...) tailerrak antolatzen dira DBHko ikasleentzat eta hitzaldiak kirol-taldeentzat.

Jarduera osagarriak:

- *Mundu bat bertso (Zortziko txikia):* Bertsoaritzaren berri ematen zaie LHko Goi Zikloko ikasleei ikasturtean zehar, asteroko saioetan. Bizkaiko Bertsozale Elkartearekin elkarlanean, hizkuntzaren arlo ludikoaren garrantzia nabarmentzeko.
- *Zinea euskaraz:* Areto komertzialetan ikasturtean zehar LH eta DBHko ikasleentzat. Hizkuntzaren prestigiorako eta euskarazko kulturaren kontsumo-ohituretan eragiteko.
- *Matrikulazio-kanpaina (D bitamina, Euskararen dimentsioa):* D eredu hautatzeko garrantziaz ohartzeko gutuna bidaltzen da 2 urteko umeen etxeetara.
- *“Futbolariak eta printzesak” antzezlanak:* Eidabe konpainiaren eskutik, parekidetasunean eta berdintasunean hazi eta hezteko, euskaraz sortuta.

Euskara-, gizarte-, aisia- eta kultur-taldeekiko loturak sendotzea: Diru-laguntzak.

Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea: Aniztasunean euskaraz bizi. Ikasleek haien artean esparru ez-formalean euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea, jolasten, abesten edo orotariko ekintzak egiten, Uztarri Kultur Taldearekin elkarlanean.

### 1.3. Euskalduntze-alfabetatzea

Euskara ikasteko diru-laguntzak: Urteetan euskara ikasi gura zuten gurasoentzako laguntza bereziak egon dira. 2016-2017 ikasturtean beste bi talde gehitu zaizkie gurasoei: aisialdiko begiraleak eta DBE (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) jasotzen dutenak. HABEko curriculumean zehaztutako A1-C1 tarte akademikoko mailaren bat gainditzean, Udalaren diru-laguntza jaso dezakete aipatu diren taldeetako herritarrek.

Mintzapraktika-egitasmoak:

- Begoñan, Deustun, Indautxun, Iralan, Errekalden eta Zorrotzan: *Mintzakide* egitasmoa. Euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak elkartzen dira euskara erabiltzeko.
- Azkuna Zentroan (1.600 lagun urtero): *Berbagune* egitasmoa. *Berbakafe* dinamika masibo honetan adin eta izaera guztietako euskaldunak batzen dira hainbat gairi buruz euskaraz berba egiteko.

## 2. Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera

Hauek dira euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreak: hiltunen kopurua; hiltunek euskaraz egiteko duten gaitasuna, erraztasuna eta aukerak; inguruan harreman-sare euskalduna izatea; eta, azkenik, hizkuntzarekiko atxikimendua.

### 2.1. Udal administrazioa: Erabilera Plana

Txostenaren 2. puntuan azaltzen da Udalaren Erabilera Planari buruzko informazioa.

### 2.2. Arlo sozioekonomikoa: Merkataritza

*Biribilko*: Bilboko merkataritzarentzat diseinatutako proiektua da. Esparru honetan euskara sustatzeko asmoz sortu zen. Merkatariei laguntza eskaintzen zaie euskara izan dadin haien artean komunikazio-hizkuntza, gero eta erosoago sentitu daitezen euskararekin, eta lehiakorragoak izateko babesa izan dezaten.

Proiektu honen barruan egindako ekintzak dira:

- Merkatarientzako euskara ikastaroak antolatu.
- Merkataritza-guneen direktorioa berrizatu da.
- Web-gunea indartu da: irudia eta komunikazioa ([www.biribilko.eus](http://www.biribilko.eus)). Bilboko merkatarien premiekin uztartuta eta haien beharretara egokituta dago *Biribilko*. Proiektua eragile hauen arteko elkarlanari esker bideratu da: Bilboko Udala, Bilbao Ekintza, Merkatarien elkarteak, HABE eta Bilboko euskaltegiak.

### 2.3. Aisia: Haur eta gazteentzako ekimenak

Eskola-orduz kanpoko programak udal instalazioetan: *Ikusi eta ikasi*. Umeentzako ikuskizun eta tailer deszentralizatuak udaltegietan. Antzerkia, magia, sukaldaritza, barreterapia... eta euskaldunak ez diren gurasoentzako hitzaldia. Web-gune lagungarria: [www.ikusietaikasi.eus](http://www.ikusietaikasi.eus). Euskara Elkarleen Topagunearekin elkarlanean.

*Harrapa zank*, gazteen zaletasunen araberako kasting, ikastaro eta ikuskizunak. Web-gune lagungarria: [harrapazank.eus](http://harrapazank.eus). Euskara Elkarleen Topagunearekin elkarlanean.

Auzoetan erabilera bultzatzeko ekimenak: *Darabilbo*, Bilboko euskaltegiekin elkarlanean gauzatutako programa, bereziki gazteei eta helduei zuzendua. Tailerrak, bisita gidatuak, ibilaldiak... Bilboko euskaltegiekin elkarlanean egiten da.



### 3. Helburu estrategikoa: Euskararen elikadura

Euskararen erabilerak bi arlo nagusi ditu: bata sorkuntza, eta bestea kontsumoa. Beraz, lehenik eta behin, euskarazko kalitatezko sorkuntza sustatu eta babestu behar da eta, horrekin batera, euskarazko kontsumoa indartu behar da ikuspegi askatzaile batetik euskal kulturaren industriarekiko, ekoizleekiko eta sortzaileekiko.

#### 3.1. Liburugintza

Liburuak:

- *Harri eta herri*: Argitalpena egin da, edizio landuan.
- Liburu-azoka: Areatzako liburu azokan euskarazko liburuen presentzia bermatu da. Stand bi egon dira urtero euskarazko liburuz horniturik. Euskadiko Liburu Ganberarekin elkarlanean 2014 eta 2015ean.

Klasikoak: Euskal klasikoen jendaurreko irakurketa etengabea Arriaga antzokian. Irakurri diren liburuen artean daude:

- G. Arestiren, *Harri eta Herri*
- J. Sarrionaindiaren, *Narrazio guztiak*
- F. Kafkaren, *Metamorfosia*
- I. Bordaren, *%100 basque*.

Bilbo Zaharra euskaltegiak antolatzen du *Klasikoen irakurketa jarraitua* ekimenaren bidez. 400 irakurlek hartzen dute parte urtero.

#### 3.2. Kulturgintza

Ipuin-lehiaketa: *Mikoleta ipuin-lehiaketa*, 2017an XXIX. edizioa izan da. LH3tik eta DBH osoko Bilbon errolatutako gazteentzat. Irabazleen eta epaimahaiaren iritziz aipagarriak diren ipuinekin liburuak sortu eta parte-hartzaile guztien artean banatzen da.

Poesia-musika: Literatura eta musika euskaraz. Arriaga antzokiarekin elkarlanean euskal poesia-musika emanaldiak antolatzen dira.

Kultur agenda eguneratua: [www.bilbaoeuskaraz.com](http://www.bilbaoeuskaraz.com) web-orriko agendan.

#### 3.3. Publizitatea

Publizitate instituzionala: Hizkuntza ofizial biek garrantzi eta trataera bera dute.

#### 3.4. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea

Hitzarmenak garatzea erakunde hauekin:

- Euskaltzaindia: Onomastikako, *Jagonet* zerbitzuko eta Azkue Bibliotekako zerbitzuetako hizkuntza-aholkularitza eta informazioa; herritarrekiko harremanak: ziurtagiriak, bisitaldiak...; eta Euskaltzaindiaren egoitzako zerbitzuen nahiz azpiegituren lagapena, ikastaroak, hitzaldiak eta erakusketak

egiteko, liburuak aurkezteko, prentsaurrekoak egiteko eta jarduera kulturalak zabaltzeko.

- Azkue Fundazioa: Finantziario partziala, euskara modu berritzailean sustatzeko, proiektu digitalak garatzeko eta harreman-sareak handitzeko.
- Labayru Fundazioa: Bilbotarrenzat interesgarria denean, euskarak Bilbon izandako oraintsuko historiaren jakintza zuzen bezain sakona biltzea.
- BIGE: Gurasoen interes eta asmoak ordezkatu eta defendatzen ditu, eta hori bete ahal izateko, honako zerbitzuak eskaintzen ditu: aholkularitza, ordezkaritza, euskara sustatzeko proiektuak, formazioa...

Jarduerak:

- Jarduerak antolatu euskararen presentzia eta erabilera soziala areagotzeko haurren artean.
- Euskara eta euskal kulturaren inguruko jarduerak Bilboko eskoletan.
- Gurasoen Elkarteak eta eskolak.

### 3.5. Hedabideak

Hedabide publikoen eginkizunak zehaztu eta betetze-maila neurtu: Hausnarketa egin da *Bilbao* aldizkarian euskarak beharko lukeen presentziaz, kantitatean zein trataeran.

### 3.6. Informazio- eta komunikazio-teknologiak

Sarean informazio gune iraunkorra: [www.bilbaoeuskaraz.net](http://www.bilbaoeuskaraz.net). Bilbon euskaraz eta euskararen inguruan garatzen den munduaren leihoa.

Teknologia berrien erabilpena bultzatzea:

- *Galdeketaun (Bilblogari)*: lehiaketa gazteentzat (12-17 urte) eta elkarlana [www.nontzeberri.com](http://www.nontzeberri.com) gunearekin. Teknologia berri batzuk, bloga adibidez, gaitua izan da gerora etorri diren beste tresnen aldetik, telefoniaren arlotik batez ere. Horregatik, *Bilblogari* lehiaketa eraldatu eta *Galdeketaun* lehiaketa garatu dugu, mugikorrean deskargatzeko APP bidezko lehiaketa. 2016an eta 2017an Bilboko Itsas Museoaren lankidetzarekin egin da.
- *Youtuber*: Youtuberra izateko gazteentzako tailerra, Azkue Fundazioaren hitzarmenaren esparruan. Gaur egun gazteek Interneten kontsumitzen dituzten eduki gehienak "YouTube" plataforman eskegita daude. Haietariko oso gutxi daude euskaraz; horregatik, 14-17 urteko gazte euskaldunentzako ikastaro honen beharra dago: youtuber komunitate euskaldun bat sortzeko. Lehenengo saioa 2017ko abenduan egingo da.

### 3.7. Euskararen aldeko motibazioa

Motibazio praktikoa lantzeko saioak: Gurasoei bereziki zuzenduak, bai Bizkaiko Gurasoen Elkartearen (BIGE) bitartez bai *Ikusi eta Ikasi* programaren barruan. Guraso erdaldunak euskaraz ikasten duten seme-alabei zelan lagundu da gehien eskatzen duten gaia.

- Gurasoentzako hitzaldiak (BIGE): Euskara sustatzeko hitzaldi-tailerrak Bilboko eskola publikoetako gurasoekin.

Landutako gaiak: gurasoek euskara jakitea ez dela ezinbestekoa, ikasketa prozesuan laguntzeko seme-alaben autonomia garatzearen garrantzia, eskolako lanekin laguntzeko ideia zehatz eta praktikoak eman, euskararekiko harremanetan positiboak izatearen garrantzia, hizkuntza desberdinak ezagutzearen eta erabiltzearen abantailak erakutsi.

- Ikusi eta ikasi programa: *¿Cómo ayudarles en las tareas escolares si no sabemos euskera?* hitzaldia Bilboko zenbait udaltegitan, herritar guztientzat.
- Deustualdeko ikastetxeak arnagune bihurtzeko bidean: *Berbaizu* euskara-elkartearekin batera, ikasleen artean hizkuntza-ohituretan eragitea eta euskara jende askorekin eta egoera askotan erabiltzeko benetako aukerak izatea. Hau da: eskolatik kanpo euskara erabiltzeko guneak, egoerak eta harremanak izatea.

Landutako gaiak: Gurasoentzako sentsibilizazio saioak, familientzako jarduerak eta lantegiak, gazteei begirako jarduerak eta lantegiak, guraso elkarteekin aholkularitza eta elkarlana.

*Euskararen Nazioarteko Eguna*: Bilbon euskararen normalizazioan dabilen talde edo pertsonaia bati gorazarrea, eredu moduan jendaurrean ipinita (Itoitz, Patxo Telleria eta Mikel Martinez, Ken Zazpi eta Korrika).

Batxilergoan eta Lanbide Heziketan sartzear daudenak: *Nahi dudalako*. DBHko 4. mailako ikasleentzako triptikoa eta informazio web-gunea ([www.nahidudalako.eus](http://www.nahidudalako.eus)). Batez ere Lanbide Heziketara doazenentzat, bertan gertatzen delako D ereduan jaitzierarik handiena. *Alkarbiderekin*, Bizkaiko udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuen bilgunea, koordinazioan.

Euskaltegira: Irailean, euskaltegietako matrikula-epea zabaltzean, Udalak kanpaina egiten du bilbotarrak euskaltegian matrikulatu daitezen bultzatzeko: prentsaurrekoa, irratiko kuñak, kartelak eta informazioa web-orrian.

“Eguna” euskarazko lehen egunkariari omenaldia: Euskara hutsean idatzitako lehen egunkariaren sorreraren 80. urteurrena dela eta, omenaldia egin zaio beste erakunde batzuekin batera 2017an.

Erakusketak: *Badu, bada. Euskara mundu eleanitzean*. Erakusketan hainbat esparruri lotutako jarduerak gauzatu ziren: zientzia eta teknologia, arte biziak, sorkuntza literarioa, gazteak, hiri-espazioa, hizkuntza bateko dialektoen arteko eta hizkuntza horren eta beste batzuen arteko elkarbizitza... Erakusketa Azkuna Zentroan izan zen ikusgai 2015ean.

*Euskara ibiltaria*: Euskaltzaindiak antolatutako erakusketa, Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) lanean oinarrituta; helburu nagusia: gure hizkuntzaren euskalki eta

hizkera desberdinek eskaintzen diguten aberastasuna modu ikusgarri eta ulerterrazean gizarteratzea. Erakusketaz gain, hitzaldiak eskaini dira Bilboko BHI zentroei.

*Kili-kili. Euskara pozgarri:* Kili-Kiliren 60. urteurrenean, Labayru Fundazioarekin eta Bilboko Euskal Museoarekin batera antolatutako erakusketa. Kili-Kiliren jarduerak, ugariak eta helburu jakinekoak ziren: euskaraz irakastea eta ume euskaldunak euren hizkuntzan alfabetatzea, jolasen, lehiaketen eta sarien bitartez, beti ere testuinguru ludiko batean.

Gau eskolen 50. urteurrena: Santutxuko gau eskolak 2016an 50 urte bete zituela eta, Bilboko Udalak parte hartu zuen horretarako antolatu zen programaren zati batean, erakusketaren arloan, hain zuzen ere.

Jaialdiak:

- Ibilaldia 2015: Udalak laguntza eman zion 2015ean Ibilaldiari, Bizkaiko Ikastolen jai nagusiari. Harrobia Lanbide Ikastolak antolatu zuen.
- Korrika 2015: 19.Korrika, *Euskahaldun!* Lelopean, azken eguneko festa Bilbon izan zen. Korrikaren helburuarekin bat egin zuen Udalak: gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea.

## 2) Udal administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana

86/1997 Dekretuaren<sup>2</sup> 18. artikulua arautzen duena betez, Bilboko Udaleko Gobernu Batzordeak 2013-2017 aldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (Erabilera Plana) onartu zuen. Erabilera Planak zehaztu zituen, besteak beste, 2013-2017 plangintzaldiaren xede nagusia, helburu orokorrak eta oinarriak. Honela jaso zituen Erabilera Planak hiru puntu hauek:

### 1) Xede nagusia, helburu orokorrak eta oinarriak

Xede nagusia:

*Plangintzaldiaren xede nagusia da Bilboko Udalean hizkuntza ofizial bien arteko berdintasunera jotzea, hau da, bi hizkuntza ofizialen berdintasun formaletik berdintasun egiazkorantz joatea.*

*Helburua, ondorioz, euskara bai zerbitzu-hizkuntza bai lan-hizkuntza izatea da, herritar euskaldunak Udalarekin dituen harremanak eta zereginak euskaraz guztiz modu normalizatuan egin ditzan. Gaurko egoetatik abiatuta, euskara laneko zeregin batzuetan txertatu beharra dago horretarako baldintzarik onenak eskaintzen dituzten ataletan.*

<sup>2</sup> 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteke herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena.

Helburu orokorrak:

*Lau dira erabilera-plan honen helburu orokorrak:*

- *Euskararen ahozko erabilera areagotzea.*
- *Euskararen idatzizko erabilera areagotzea.*
- *Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitzea.*
- *Langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea.*

Oinarriak:

- *Herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua: Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar ditu Administrazioak; bideak jarri behar ditu hizkuntzen berdintasunera jotzeko; eta hori lortze aldera, **bereziki zainduko du herritarrari lehen atentzioa euskaraz ematea**, hari inolako deserosotasunik eragin gabe. Horrez gain, komunikazio telematikoak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira administrazioaren eguneroko jardunean eta komunikazio mota hauek euskaraz eskaintzea bermatuko da.*
- *Hizkuntza-irizpideak: Udal administrazioaren dinamikak **hizkuntza-irizpideen etengabeko aplikazioa** eskatzen du, hastera doan V. fasean **kontratazio administratiboetako arloan bereziki**, Eusko Jaurlaritzak emandako apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren -Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normaltzekoa- 18. artikuluko d) letrak aipatzen duenaren haritik, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, Udalak berak bete beharko lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak bermatu behar dira.*
- *Langileen prestakuntza: Langileak dira Erabilera Planaren motor eta arima. Beraiekin **landuko dira lan-jardunean gertatzen zaizkien egoerak eta sekuentziak, euskaraz aritzeko aparteko zailtasunik izan ez dezaten**, beraiek adierazitako formazio behararen harira. Eta saioak amaitu ostean ere, orain arte hasitako bideari ekingo zaio euskaraz aritzeko gai diren langileen artean. Euskaraz lan egiteko aukera gehien eskaintzen dituzten unitateak identifikatuko dira eta errazenetatik hasita, euskarazko funtzionamendua bultzatzeko neurriak jarriko dira abian.*
- *Bilboko Udalaren irudi korporatiboa: Udalak kanpo proiektzioan ematen duen irudian **euskararen presentzia bermatuko da, batez ere jendaurreko ekitaldiek duten informazio oihartzuna kontuan izanda**. Bereziki zainduko dira, euskararen presentzia handitzeko ahaleginean, hedabideek zabaltzen dituzten ekitaldiak, udal-ordezkarien aldetik ez ezik kamara eta mikrofono aurrean jartzen diren Udalak deitutako profesional gonbidatuen eskutik ere.*

Honaino Udalaren Erabilera Planak erabaki zuena.

Udalaren Erabilera Plana euskararen normalizazioari buruzko arauak herri administrazioentzako arautzen duten marko juridikoan dago kokatuta. Legezko

testuinguru horretan ulertu behar dira planteatzen dituen helburuak eta proposatzen dituen neurriak.

## 2) Lanerako esparruak

Erabilera Planean finkatu ziren oinarriek ondoren aipatuko diren esparruetan lan egiteko aukera ematen zuten:

- Euskararen erabilera zerbitzu-hizkuntza gisa.
  - Herritarrekiko euskarazko harremana ziurtatu, ahoz eta idatziz.
  - Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu.
  - Udalak zuzenean edo zeharka eskaintzen dituen zerbitzuetan euskararen erabilera ziurtatu.
  - Udalaren irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitzeko ahalegina egin.
- Euskararen erabilera lan-hizkuntza gisa.
  - Udal administrazioko barruko sailen eta atalen arteko komunikazioak, ahoz eta idatziz, apurka-apurka euskaraz izan daitezen ahalegina egin.
  - Euskararen ezagupen maila egokia daukaten langileez osatutako sailen edota atalen azterketa egin, haietan euskararen erabilera sustatzeko ekimenak abian jartzeko.
  - Euskararen erabilerarako irizpideak landu eta zabaldu udal administrazioko sail guztietan aplikagarriak izan daitezen, besteak beste, kontratazio espedienteetan, diru-laguntza deialdietan eta agintarien agerraldietan.
- Euskararen erabilera beste herri administrazioekiko harremanetan.
  - Beste herri administrazioekiko harremanak, ahoz eta idatziz, euskaraz izan daitezen bultzatu.

Esparru hauetan lortu nahi diren helburuak kontuan hartuta, plangintzaldian bideratu diren ekimenak eta planteatu diren neurriak honako eginkizunekin lotu dira:

- Langileen eta arduradunen euskara-maila hobetu.
- Euskararen erabilera areagotu, ahoz eta idatziz.
- Langileen eta arduradunen motibazioa landu.

Horrenbestez, Erabilera Planaren **osagaiak** plangintzaldi honetarako honako hauek dira:

## 3) Lanpostuetako hizkuntza eskakizunak (HE) eta derrigortasun datak (DD):

Honen barruan kontuan hartu behar dira Udalak plangintzaldi honetan derrigorrez bete beharreko indizea eta lanpostuen zerrenda.

Bilboko Udalak bete beharreko derrigortasun-indizea (DI): % 36,30<sup>3</sup>

---

<sup>3</sup> 86/1997 Dekretuaren 11. artikulua arautzen du zer den derrigorrez bete beharreko indizea eta nola kalkulatzen den.

Lanpostu-zerrendaren datuak:

Lanpostuak	DD	%	Egiaztatuta	%	HE1 gutx.	%
2.348	1.151	49%	1.178	50%	221	9%

2017ko azaroko datuak

- Plantillaren ia erdiak (%49) derrigorrezko HE dauka.
- Bilboko Udalarri dagokion DIk agintzen duen baino lanpostu gehiagok daukate derrigorrezko HE ezarrita.
- Egiaztapenei begira, 1.178 langilek egiaztatu dute (derrigorrezkoa izan ala ez), dagokien HE, hau da, langileen %50ak. Beraz, Udaleko langileen erdiak badu lanpostuan eskatzen den euskararen ezagutza maila.

#### 4) Langileen prestakuntza

##### Lanpostuaren HE egiaztatze ikastaroak:

Euskalduntze-alfabetatzeko ikastaroak:

2013-2017 tartean **203** izan dira euskara ikastaroetara joateko baimena izan duten langileak.

HE egiaztatze azterketak:

2013-2017 tartean **254** langile aurkeztu dira HEk egiaztatze azterketara eta **38 langilek** gainditu dute HE.

1 HE	11
2 HE	21
3 HE	4
4 HE	2
Guztira	<b>38</b>

##### Lanpostuan euskara erabiltzeko trebakuntza-programa:

Programa honen bidez, Euskara Zuzendariordeak baliabideak eskaintzen dizkie langileei euskara lan-hizkuntza gisa erabil dezaten.

Ezaugarriak:

- Norentzat: lanpostuari dagokion HE egiaztatuta duten langileentzat.
- Helburua: euskaraz jarduteko trebatzea eta konfiantza hartzea, idazmena eta jariotasuna landuz.

- Iraupena: gehienak 30 ordu. Irail-urrian hasten dira saioak eta maiatz-ekainean amaitu. Hori dela eta, urtean 2 txanda eskaintzen dira, udazken-negukoa eta negu-udaberrikoa.
- Erritmoa: langileek astean 2 orduko iraupena duten saioetan parte hartzen dute (intentsitate txikia baina 3-4 hiletako iraupena).

Dagoeneko, hainbat sailtako langileek parte hartu dute trebakuntzan: Alkatetza, Berdintasuna, Lankidetzak eta Hiritartasuna, Ekonomia eta Ogasuna, Espazio Publikoko Bulegoa, Euskara, Giza Baliabideak, Gizarte Ekintza, Hirigintza, Hiritarrekiko Harremanak, Kalitatea, Kontabilitatea eta Aurrekontuak, Kultura eta Hezkuntza, Osasuna eta Kontsumoa, Partaidetza, Prentsa kabinetea, Turismoa eta Jaiak, Zirkulazioa...

Hainbat langilek edizio baten baino gehiagotan hartu dute parte .

**2013-2017** tartean hauxe izan da parte hartzea: **guztira 512 ikasle**.

urtea	ikasleak
2013	81
2014	111
2015	126
2016	74
2017	120

2017an eskainitako **6** ikastaroak honako hauek izan dira:

- *Freskatu zure euskara* GRAMATIKA (30 ordu)
- *Berriketan*. AHOZKO KOMUNIKAZIOA (30 ordu)
- *Aitu bizkaiera*. ENTZUMENA (BIZKAIERA) (30 ordu)
- *Pixka bat aski da komunikatzeko 1. HE* . AHOZKO KOMUNIKAZIOA (30 ordu)
- *Irakurmena eta entzumena lantzeko tailerra*. (30 ordu)
- *Mezu elektronikoko txukunak*. IDAZMENA (10 ordu)

2017-2018 ikasturtean ikastaro hauez gain berri bat eskaintzeko asmoa dago:

- Hizkera argia Udako testuetan. IDAZMENA (10 ordu)

Asebetetzea:

Ikastaroen balorazioa oso altua da, bai parte hartzen duten langileen iritziz bai eta sailtako prestakuntzako koordinatzaileen iritziz ere. Koordinatzaile gehienek uste dute behar- beharrezkoak direla langileen formazioan.



### Zinegotzi eta zuzendarientzako trebakuntza

Ekimen hau arduradunentzako prestakuntza moduan planteatu da baina Udalaren irudi korporatiboan euskararen presentzia indartuz joateko helburuarekin ere lotuta dago.

Udalak kanpo proiektioan ematen duen irudian euskararen presentzia bermatzea da helburua, batez ere jendaurreko ekitaldiek duten informazio oihartzuna kontuan izanda. Hori dela eta, 2008-2009 ikasturtean udal-arduradunei zuzendutako hizkuntza prestakuntza programa hasi zen eta, harrezkero, hainbat sailtako zinegotzi ordezkariak eta zuzendarik hartu dute parte.

Ezaugarriak:

- Helburua: jarioetasuna eta zuzentasuna landu, batez ere, jendaurreko ahozko jardunean konfiantza eta erosotasuna agertzeko.
- Iraupena: iraupen desberdina izan dute ikasturteek baina, oro har, irail-urrian hasten dira saioak eta maiatz-ekainean amaitu.
- Talde txikietan eta bakarka egin daiteke trebakuntza hau.

Parte-hartzaileak:

- Programa hasi zenetik, 48 arduradunek hartu dute parte.
- Plangintzaldi honetan 34 arduradunek hartu dute parte programan.

Asebetetzea:

Parte-hartzaileek oso ondo baloratzen dute prestakuntza hau. Planteamendu praktikoa du eta baliagarria egiten zaie.

### Langileen etengabeko prestakuntza euskaraz

Etengabeko Prestakuntza Planaren bidez urtero eskaintzen diren ikastaroetan parte hartzeko aukera dute langileek.

2017						
Ikastaroak guztira		Euskaraz	%	Trebakuntza	Beste gaiak	%
Ikastaroak	103	14	13,59%	6	8	7,77%
Parte hartzaileak	2.052	240	11,70%	121	119	5,80%

- Eskaini diren ikastaroak guztira **103** izan dira.
- Aurreko puntuan azaldu ditugun trebakuntza-saioak (euskara bera lantzeko helburu dutenak) kenduta, beste gaietara buruz **8** ikastaro eskaini dira aurten euskaraz (%7,77)

Euskaraz eskainitako ikastaroak honako arloei buruzkoak izan dira:

Arloak	Ikastaroak	Parte-hartzaileak
Berdintasuna eta immigrazioa	2	77
Juridiko-ekonomikoa	3	5
Kudeaketa eta trebetasunak	3	37
	8	119

### 5) Langileen hizkuntza-ohiturak aldatzeko esperientzia

Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren ekimenez, 2017an abian jarri da hizkuntza-ohiturak aldatzeko esperientzia Udaleko honako bost ataletan:

- Herritarrentzako arreta Zuzendaritza: Ibaiondo, Basurtu-Zorrotza, Abando-Errekalde eta Deustu-Errekalde barrutiak
- Euskara eta Hezkuntza Zuzendaritza: Hezkuntza atala
- Idazkaritza Nagusia
- Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa (KIUB-OMIC)
- Kultura Zuzendaritza: Programazioko Zuzendariordetza eta Liburutegien Zuzendariordetza

Ezaugarriak:

- Helburua: aukeratutako ataletako langileen arteko eguneroko ahozko komunikazioa euskaraz izan dadin sustatu. Lankideen artean gaztelaniaz komunikatzeko dagoen ohitura aldatu nahi da eta euskaraz komunikatzera pasatu.
- Parte-hartzaileak: aukeratu diren ataletako langileak.
- Esperientzia pilotua da.
- Baldintza: atalak aukeratzekoan kontuan hartu da langileen euskararen ezagutza-maila. Aukeratu diren atal guztietan diharduten langileek ezagutza-maila nahikoa daukate esperientzian parte hartzeko.
- Metodologia: langileekin eta atalburuekin adostu ondoren, atala osatzen duten guztiek onartu egiten dute epe labur batez (astebete) euskaraz izango direla beraien arteko komunikazioak (elkarrizketak, bilerak...). Epe horretan gauzak nola joan diren aztertu ondoren, erabaki egiten dute jarraitzea edo ez.
- Iraupena: hilabete

Hizkuntza-ohiturak aldatzeko esperientzia Udaleko zenbait ataletan abian jartzeko lanak uda aurretik hasi ziren. Aukeratutako ataletan orain ari dira esperientzia aurrera eramaten.

Ekimen pilotuak urte honen bukaera arte iraungo du.

## **6) Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak**

Bilboko Udalak hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak erabaki zituen Erabilera Planaren II. plangintzaldian (1998-2002).

Ahozko eta idatzizko komunikazioetan baita hizkuntza paisaiari dagokionez ere nola jardun behar den zehazten zuten irizpideok. Honako esparruetarako irizpideak zehaztu ziren:

- Jendaurreko lanpostuetan, aurrez aurre eta telefonoz
- Udalaren izenean jendaurreko edota harrera zerbitzua egiten denean (eraikinetako segurtasuna)
- Erantzungailu automatikoak, megafonia
- Hizkuntza-paisaia: kaleko seinaleak, eraikinak
- Idatzizko komunikazioetan
- Mezu elektronikoak
- Web-gunea
- Argitalpenak (liburuak, aldizkariak....)
- Jendaurreko ekitaldiak

Jarraibide zehatzak jaso ziren esparru horietako bakoitzean euskararen erabilera bermatzeko.

Bestalde, 2008an Gobernu Batzordeak onartu zuen hizkuntza-baldintzak jartzea administrazio- kontratuetan eta plegu administratiboen karatulan jasota daude.

Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideek indarrean diraute. Hala ere, haien aplikazioa ez da espero zitekeena. Euskararen erabilerari dagokionez, bide luzea daukagu oraindik normaltasunezko egoera batera heltzeko. Horregatik, hurrengo plangintzaldian ere lanean jarraituko dugu euskararen erabilerarako irizpideak bete daitezen esparru guztietan.

Bestalde, idatzizko komunikazioen kasuan, hizkuntzen erabilerarako irizpideen aplikazioaz gain, dokumentuen estandarizazioa-normalizazioa ere landu izan da. Ikuspuntu hauek hartu dira kontuan dokumentuak normalizatzeko egin diren saioretan:

- Dokumentu elebidunak aldeko proposamena egin, bi hizkuntza ofizialen presentziarekin
- Komunikazio argia lehenetsi

Sarreran esan bezala, Erabilera Planaren V. plangintzaldia aurten amaituko da. Erabakitako helburuen betetze-mailari buruzko hainbat adierazle bildu ditugu euskararen erabilerari dagokionez, zerbitzu-hizkuntza gisa eta lan-hizkuntza gisa. Baina plangintzaldiaren ebaluazioa egiteke dago.

### **3) EABren azpibatzerdeak**

Bilboko Udaleko Euskararen Aholku Batzordea 2016ko otsailean sortu zen, eta hiru azpibatzerdeak 2017ko urtarrilean abiatu ziren. Orain arteko ibilbidean guztira egindako 15 bileretan lan hauek guztiak egin dira:

# BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN ORAIN ARTEKO IBILBIDEA

**1. bilera (2016ko otsaila)**

- Batzordearen sorrera eta osaera
- Helburuak markatu
- Funtzionamendua zehaztu

**2. bilera (2016ko ekaina)**

- Araudiaren zirriborroa egin
- 3 azpibatzerdeak sortu:
  - + Euskaltegiak
  - + Euskara-elkarteak
  - + Hedabideak
- Bilboko ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) azaldu

**3. bilera (2016ko urria)**

- Araudia onartu
- 3 azpibatzerdeen helburuak, funtzionamendua eta kronograma adostu
- Bisio estrategikoa adostu

**3 azpibatzerdeen 1. bilera (2017ko urtarrila)**

- Aholku Batzordearen lana eta ibilbidea azaldu
- Bisio estrategikoa adostu: etorkizuneko ardatzak

**3 azpibatzerdeen 2. bilera (2017ko otsaila)**

- Helburu eta ekintza zehatzak proposatu, eztabaidatu, adostu eta lehenetsi

**4. bilera (2017ko apirila)**

- Azpibatzerde bakoitzetik bozeramaile Batek (Jon/Ainara/Libe) hau azaldu zuen:
  - + Bere azpibatzerdean egindako lanak (bisio estrategikoa + helburuak)
- Azpibatzerdeetako ekintza guztiak aztertu eta taldeetan sailkatu:
  - + Euskaltegienak soilik
  - + Euskara-elkarteenak soilik
  - + Hedabideenak soilik
  - + Transbertsalak
- Aurrera begira, lan-metodo modura, ekintza guztiak, 3 multzotan:
  - + Udalari dagozkionak
  - + Azpibatzerdeei dagozkienak
  - + Azpibatzerdeek zehaztekoak

**3 azpibatzerdeen 3. bilera (2017ko maiatza)**

- Orain arteko ibilbidea eta lanak azaldu
- Aurrera begirakoak markatu: ekintza batzuk zehaztu eta landu irailerako

## BEAB-REN DATUAK:

- 15 bilera (4 AB + 11 AzB)
- 60 parte-hartzaile/eragile
- Oso giro ona
- Oso balorazio ona

**Euskaltegien 4. bilera (2017ko maiatza)**

- Diru-laguntzei buruzko monografikoa.
- Sektore zehatzekin (gurasoak, merkatariak, langabetuak, etorkinak...) zer egin haiek landuko dute irailerako.

**Euskara-elkarteen 4. bilera (2017ko ekaina)**

- Diru-laguntzen prozesuan hobetu beharrekoak.
- Sektore zehatzentzako ekintzak (gurasoak, merkatariak, langabetuak, etorkinak...) aukeratu.

Goiko eskeman ikusten denez, denbora honetan, hainbat eragile eta norbanakorekin **ikuspegi estrategikoa adostu** dugu, arlokako **beharrak detektatu** ditugu eta **aurrera begirako lehentasunezko ekintza zehatzak markatu** ditugu.

## 2018rako lan-ildoak

---

### 1) ESEP eta Erabilera Plana

Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) eta udal administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren **hurrengo plangintzaldirako helburuak eta ekimenak planifikatuko dira**, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak herri administrazioei emango dizkigun jarraibideak Bilboko Udalaren egoerara egokituz. Bai ESEP, baita Erabilera Plana ere plan estrategikoak dira herri administrazioek euskararen sustapena lortzeko lan egin dezagun. Zentzu horretan, Bilboko Udalak lanabes hauetaz baliatu behar du etorkizunari begira planteatuta dauzkagun erronkei erantzun egokia eman ahal izateko.

- **ESEP: 2017an amaitzen den planaren balantzea egin ostean**, hurrengo epealdian **planaren hiru helburu estrategikoekin lanean jarraitu behar** da. **Euskararen jabekuntzan, erabileran eta elikaduran sakonduz** segituko dugu orain arteko programei jarraipena emanez eta berriak sortuz.
- **Erabilera Plana:**
  - Arreta berezia jarri behar zaio **hizkuntzak erabiltzeko irizpideen** aplikazioari eta betetze-mailari. Euskararen ezagupenean aurrera egin dugu baina erabilera erroka handia da gaur egun oraindik.
  - **Udaleko langileen hizkuntza-ohiturak aldatzen lagunduko duten ekimenak indartuko** ditugu, 2017an 5 unitatetan izandako esperientzia pilotuaz baliatuz. Ekimen honek bat egingo du udal administrazioko Erabilera Planerako planifikatuko diren ekintzekin.

### 2) Toki administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko araudia eta herritarren hizkuntza-eskubideak:

Bilboko **Udalaren ordenantzak aztertuko dira** eta arloz arlo euskararen normalizazioaz araututa dagoena jaso. Halaber, beste udal batzuek gai honi buruz arautu dutena ere jasoko da eta informazio horrekin datu-base bat osatu. Euskararen normalizazioari dagokionez araututa dagoena aintzat hartuta, araudian egon daitezkeen gabeziak ezagutu nahi ditugu, etorkizunerako erabakiak proposatzeko.

### 3) Euskararen aldeko motibazioa eta sentsibilizazioa

Euskararen erabileran aurrerapausoak eman ahal izateko, hizkuntzaren ezagupena ezinbestekoa da, baina ez da nahikoa. Esperientziak horixe erakusten du, tamalez.

Hori dela eta, hainbat ekimen sortu dira han-hemenka euskaradun langileak, gazteak, gurasoak, eta herritarrak, oro har, euskararen alde sentsibilizatzeko eta hizkuntza erabil dezaten animatzeko. Hiztunak irabazi nahi baditugu, motibazioaren bidea ere landu beharko dugu aurrerantzean.

2018ari begira, **honako bi norabideetan lan egitea aurreikusten dugu:**

- Dagoeneko abian jarri dugun **Hirian ere... ekimena** garatu, eta herritarrak animatu Bilbon euskara edonon erabil dezaten (kalean, dendan, tabernan...). Herritar guztiontzako mezua izan nahi du, Bilbotarrak izan nahiz beste hiriren-hiriren batetik etorritakoak izan. Euskaraz komunikatzeari lehentasuna eman diezaioten, alde batera utzita zein den euren ezagupen-maila. Bilbon lehen hitza euskaraz esan dezagun denok.

Ekimenak euskararen erabilera sustatu nahi du bizitasuna duten mezuak eta alaitasun puntua duten esaldiak zuzenduz herritarrei. Erabilera naturala eta normaltasuna aldarrikatu nahi dugu euskararentzat.

- **11 egun euskaraz ekimena** lagundu. Ekimen hori Eusko Jaurlaritzaren eta Topagunearen elkarlanaren emaitza da eta hainbat herri eta hiritako herritarren hizkuntza-ohiturak aldatzea du helburu. Bilboko euskara-elkarteeekin elkarlanean jardun Euskal Herri mailan herritarren hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuarekin bultzatuko den **11 egun euskaraz** ekintza gauza dadin.

### 4) Azpibatzerdeak

Hauek dira hiru azpibatzerdeetan egindako bileren eta dinamiken ostean **lehentasunezko zatik jo diren ekimenak**, 2018an lantzeko proposatutakoak:

**Euskaltegien azpibatzerdea:**

- Kezka bat da nagusi sektorean: **finantzazioa**. Haien esanetan: "Bilbon garestia da euskara ikastea. Ikasleak matrikularen zenbatekoa aurreratzen du eta hori askotan traba izaten da jendea euskaltegira joateko". Dakigunez, Eusko Jaurlaritza aztertzen ari da Helduen euskalduntze-alfabetatzean B2 mailara arteko matrikulak ikasleei doan eskaini ahal izateko aukera, eskumen hori HABErena baita. HAKOBARA (Herri Administrazioak Koordinatzeko Batzordea) eraman du Jaurlaritzak gaia beste administrazio batzuekin adosteko. Gaiak euskaltegiei zuzenean eragiten die.

Bilboko Udalak ez dauka helduen euskalduntzean eskumenik. Euskara Zuzendariordearen aurrekontuetan garbi ikus daiteke. Gurasoei, ume eta



gazteekin lan egiten duten aisialdiko begiraleei eta DBE (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) jasotzen duten pertsoneri euskara ikasteagatik diru-laguntzak emateko diru-partida daukagu eta ez besterik. Diru-laguntzen deialdia aztertuko du Udalak hobekuntzarik egin dezakeen ikusteko (hartzaileen tipologia zabaldu, adibidez) eta horren arabera moldaketak egin hurrengo urterako. HAKOBAn gai honekin lanean jarraituko dugu.

- Finantzazioari buruzko gaiak aparte, euskaltegien azpibatzerdean ikusten dute **populazioaren sektore jakinentzako eskaintza egokia** egiten asmatu beharra dagoela. Zentzu horretan, bat datoz euskara-elkarteekin. Prest agertu dira gazteen, familien, merkatarien eta etorkinen sektoreentzat eskaintza bereziak lantzeko.

#### Hedabideak:

- Behin baino gehiagotan gaztelan bidali izan zaie Udalaren informazioa hedabideei. Horretaz gain, euskaraz lan egiten duten hedabideak bigarren maila batean sentitzen dira informazio garrantzitsua, gehienetan, gaztelan zabaltzen delako.

Udalak arreta berezia jarriko du hedabideekin dituen **harremanak (idatziz eta ahoz) bi hizkuntzetan** izan daitezen, eta **euskarari lehenetsua emanda**: prentsa-oharrak, prentsaurrekoak, elkarrizketak, aurkezpenak, eta abar.

Horretaz gain, Udalak ahalegina egingo du **euskarazko hedabideei garrantzia** emateko (titularrak, eskusibak, iturria aipatu, publizitate instituzionala, eta abar).

#### Euskara-elkarteak:

- Sektore jakinetan ezagutza, erabilera eta motibazioa sustatzeko premia ikusten dute. Gazteak, familiak, merkatariak eta etorkinak aukeratu dira eta horientzako ekintzak proposatu dituzte. Han-hemenka erabili diren programa edota esperientzia arrakastatsuek baliatu nahi dituzte. Honakoak lehenetsi dira sektoreen arabera:

**Gazteak:** gazte-lagun taldeentzako mintzapraktika-egitasmo berezia martxan jarri (**Mintzakuadrillak**), zenbait udalerritan izandako esperientzia arrakastatsuetan oinarrituta.

**Familiak:** **Familian olgetan** proiektua martxan jarri, auzoetan, 8 urtera arteko umeak dituzten familia euskaldunentzat, gurasoek seme-alabekin eta hauen presentzian beste helduekin euskaraz eta eremu informaletan jolastu, sortu eta disfrutatzen.

**Merkatariak:** *Bilbao Turismo*, *Bilbao Ekintza* eta *Bilbao dendakekin* harremanetan jarri merkataritzan eta turismoan euskara sustatzeko ekintzak

bultzatzeko eta bermatzeko. Zehatzago, merkataritzan, **Biribilko plana indartu**, batez ere establezimendu euskaldunak bisibilizatzeko: saltoki euskaldunak identifikatu eta zerrendatu, eta hainbat euskarritan gizarteratu (Azkue Fundazioaren Euskararen maparekin lotu), errotuluak, testu komertzialak, fakturak, iragarkiak... euskaraz ere jartzeko laguntzak eman *Biribilko* programaren bidez.

**Etorkinak: "Zergatik ez? / ¿Compartimos?" tailerra** antolatu. Helburua da parte-hartzaileek gogoeta egitea beren eguneroko jarrera linguistikoaren eta jarrera horren eraginaren gainean. Ikastaroan, besteak beste, gai hauek lantzen dira: soziolinguistika, Euskal Herriko egoera linguistikoa, gure eguneroko hizkuntza-ohiturak, eta abar. Euskaraz ez dakitenentzat ere egiten da, gaztelaniaz.